



Asua

etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa: Asúa / Asúe



43° 10' 9"

2° 33' 25"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Asua... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... comprende en el recinto que ocupan sus paredes ciento treinta estados, equivalentes a cuatrocientos noventa y cuatro metros quinientos veinte milímetros de cabida, y la que se compone de sus correspondientes cuadradas divisiones y habitaciones...”
DJE 2/230 or. (1870)

Arestian aipatutako baserriekin bezala, Okango kofradian kokatzen den baserri honen izenak (*Asua*) aldaketa gutxi jasan ditu XVIII. mendetik hona. Bizkaiko su-erroldean *Asua* (1704, 1745 eta 1796) moduan agertzen da, eta 1967ko erroldan ere, berdin idatzita aurkitzen dugu. Tartean, batzuetan *Azua* (1865, DJE, 1/148. or.) topatzen badugu ere. Auzotarrek, eta, oro har, berriztarrek *Asúa* edo *Asúe* formak erabiltzen dituzte euren arteko berbaldietan.

Baserri etxe handia, XVII. mendean hedatu zen egituran jaso, nahiz eta hurrengo mendekoa izan daitekeen. Hori pentsarazten du atarteko egurrezko dintelari eusteko daukan koloma klasiko toskanarrak, halakoa baita

1723ko *Isuntzabekoa* (**Ikus Isuntzabekoa**). Ohiko hiru gorputzak bistan ditu, eta azkenean eraberritzean aldaketa sakona izan du, are gehiago argazki zaharretan agertzen zuen aurre itxuraz konparatzen badugu. Aldameneko bi gorputzak harrizkoak dira eta, gainera, eskuma aldekoa da bi pisuak material horretakoak dituen eta fatxadetan ere irtenago agertzen dena. Erdialdean eta ezker aldean, oster, egurrezko egitura eta adreilua dira nagusi. Gaur egun, lehenengoan bistan daukan egurrezko egitura guztiz sinplifikatuta dago eta ezker aldean, gainera, zurajea adreiluek ezkutatu egiten dute. Ganbara aldeko txori-tokiak berriak dira. Teilatua bi isuritakoa da.

toponimia

Asua izeneko toponimoa arrunta da Euskal Herrian eta, esaterako Erandioko leku ezaguna dugu. Mitxelenaren ustez etimoa harri + zu izan daiteke eta “leku harritsua” esan nahiko luke. Amaieran, nola ez, artikulua dugu eta Asuko, Asutik,... esaten da.